

Noaia!!



Mundu bat
Sagardo Egunean



Maiatzaren 27an Beteka perkusio taldearen lehen kalejira

Ederra izango da showa



Lehiaketa

Pirritx eta Porrtx pailazoen disko berrienak!
Joan den urtean Euskal Herrian egindako 150 emanaldietan
100.000 pertsona baino gehiago erakarri zituen
Pirritx eta Porrtx taldeak. Duela hilabete gutxi,
"Maite zaitut" ikuskizuna aurkeztu zuten.

Laster, Usurbilen izango dira berriz ere.

Ekainaren 15ean, Usurbilgo frontoian, arratsaldeko 17:00etan
hain zuzen. Bost egun lehenago, ekainaren 10ean,
"Maite zaitut" diskoaren ale bat zozketatuko dugu gure
irakurleen artean. Bidali e-posta bidez agur bero bat
pailazoari eta CD baten zozketan hartuko duzu parte.

Animo eta zorte on!



Bidali e-maila erredakzioa@noaua.com.

Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).



IES LASARTE-USURBIL

HEZIKETA ZIKLOAK (A/D EREDUAK)



erdi maila | Administrazio Kudeaketa
Merkataritza 2

Administrazioa eta Finantzak | **goi maila**
Informatika Sistemen Administrazioa 2.

eskaintza partziala (2006-2007)

Informatika Sistemen Administrazioa.
Goi Mailako Heziketa Zikloetarako Sarbide Ikastaroa.

ZIKLOAK

Urnieta bidea z.g 20.160 Lasarte -Oria
☎ 943 370 611 / Fax: 943 363 396
✉ zikloak@instilasarte.net



Txirrikutik !!

Zubietako Aizpuruko errota duela 100 urte inguru erre egin zen eta beraz, argazki hau erre aurrekoa behar du izan, 1901 urtekoa hain zuzen ere. Aizpuruko errota Oria errioaren eskuinaldean kokatzen da. "Usurbilgo baserriak eta baserritarak" liburuan aipatzen denez, errotak lau harri parerekin lan egiten zuen. Gipuzkoan zegoen errotarik onenetakoa omen zen, batez ere bere instalazioarengatik. 1920 urte aldera azkeneko ehotzea egin zuten. Ondoren zerrategian bihurtu zen eta gaur egun horrela izaten jarraitzen du. Babilonia baserria bezala, errota Azkoitiko Hurtado de Mendoza familiarena da. Errioaren ezkerrean ageri zaigun baserria Babilonia da. Baserrian bi famili maizter bizi dira; Urkiola-Borda eta Rezola-Azurmendi sendiak. Baserria aspaldian ermita ere izan zela esaten da, Errukizko Ama Birjinari eskainia. Aipatzekoa da Babilonia hiru aldiz erre dela, azkenekoz XX. mendearen hasieran. Uholdeez ere ez da horren erraz libratu. Babiloniako Pello Rezolaren hitzetan, garai bate-



Zubieta, 1901.

an errotako presa azpian arrantza egiten omen zuten; barboak, loinak, aingirak, amuarrainak.... Beste garai batzuk ziren...

Zaloe Arnaiz Ibarguren

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordenberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinaatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloe Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO GARAIA **5. OR.**

BETEKA PERKUSIO TALDEA **6. OR.**

SOINURBIL MUSIKA ASTEA **8. OR.**

Pasa den ostiralean hasi zen Soinurbil, Zumarte Musika Eskolak bigarren ez antolatu duen musika astea. Igandean, Debako Musika Banda arituko da.



BEKA DEIALDIA EGIN DU NOAUA!K **9. OR.**

SAGARDO EGUNEKO IRUDIAK **10. OR.**

EUSKAL KARAOKEA SANTUENEAN **13. OR.**

NOAUA! TXIKIREN TARTEA **15. OR.**

AGENDA: DEIALDIAK, EKITALDIAK... **17. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!



JOSE PIÑAS

Erlojuaren atzealdea

Burua hara bueltatu, hona, goikaldera... Hamarrak eta laurden, hiruak eta bost. Usurbilen nago, edota Parisen, edota Londresen.

Eskubira begiratu, baina batez ere ezkerrera eta behealdera, kale honetatik sartu, etorbide hartatik ibili... Erlojurik ez. Tindoufen nago, edota Malin, edota Mexikon.

Europako edozein lekutan erlojuren bat aurki dezaket. Afrikan edo Amerikan, aldiz, ez.

Betidanik erlojuak elizetan eta erakunde publikoen eraikinetan ikusi ditugu. Berandago banketxetan ere bai. Eta jada farmazietan eta *pirulo* horietan, publizitate azpian, ikustera ohitu gara.

Zergatik hainbeste erloju? Zergatik leku horietan? Zergatik Europan bai eta Amerika edo Afrikan ez? Ba al dago loturarik? Bitxia iruditzen zait botere publikoak zein erlijiosoa bere eraikinetan erlojuak jartzeari ematen dioten garrantzia, han, goikaldean. Eta orain enpresa pribatuak joku horretan nola sartu diren, marketing estrategia aplikatuz, orduaz gain tenperatura eta guzti eskainiz.

Dagoeneko ez dakigu zer den garrantzitsuago: gradu kopurua jakitea, edo hotza ala beroa sentitzea; ordua ezagutzea, edo berandu ala garaiz den jakitea.

Erlojuak bere karga sinbolikoa duela dirudi. Horregatik

botere ezberdin horiek, alegia, publikoa, erlijiosoa eta enpresa pribatuena, erlojuaren sinbologiaz baliatuz denbora kontrolatuko balute dabilta.

Mexikotik idazten ari naiz. Esan bezala hemen zaila da erlojurik topatzea, horregatik bat aurkitu dudanean ondo begiratu diot: goitik, behetik, aurretik eta atzetik. Atzealdean Mexikon ikusten zaila dena eta ikusten ez diren pertsonak topatu ditut: indigenak, nekazariak, emakumeak, aiton-amonak, saltzaile txikiak, langileak, etxeko andreak... Pobrezia, gosea, negarra, sufrimendua, bakardadea, heriotza.

Zokalo erlojuari buruz ari naiz. Begiak erdi itxi ditut begirada sakondu eta existitzen ez dena hobeto ikusi nahian. Berriz ere nekazariak, indigenak, etxeko andreak eta abar. ikusten ditut, baina oraingo honetan zerbait aldatu da; aihotza daramate eskuan eta talde bat osatuz aurrerantz doaz. Oraingoan amorrua, antolaketa, borroka, elkartasuna, itxaropena eta duintasuna beraien begietan islatzen dira.

Zokalo erlojuari ez zaio aurrealdetik begiratu behar, atzealdetik baizik, eta behetik eta ezkerretik gainera.

Zokalo erlojuari honela begiratuz gero, ez du ordua markatzen, mementua baizik. Pobrezia gainditzeko mementua, botere horiek pikutara bidaltzeko mementua. Orain.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

Ika-mika !!

Luis Mari Ormaetxea nahiko da! Manipulaziorik ez!

Usurbildarron hitza bete gabe eta herri honen legitimotasunik gabe Usurbilgo alkate dela uste duen Luis Mari Ormaetxearen jarrera salatu nahi dugu ozenki beste behin ere. Herriko elkarteak gaiztoki manipulatu eta presionatu nahi izan ditu, Aitzaga elkartearen hitza eta zintzotasuna zalantzan jarrita. Eskutitz honen bitartez gertatutakoa argitu nahi dugu:

Aitzaga elkarteak bere egoitzen itxiera salatze orain dela bi hilabete inguru mozio bat aurkeztu zuen. Mozio horretan honako lau eskari luzatu zitzaizkion Udalari:

1) Espainiako Auzitegi Nazionalak Aitzaga Elkartea itxi izana ozenki salatzea eta Aitzaga elkarteko kideei bere elkartasuna adieraztea.

2) Udalak bere baliabideak Aitzaga elkartearen esku uztea eta ekimen judizial horrek Aitzagari sortu dizkion kalte ekonomikoak bere gain hartzea.

3) Gatazkaren konponbidea Euskal Herriaren eskubideen eta herritar guztien erabakiaren erresporetatik etorriko dela aldarrikatzea.

4) Itxiera salatze antolatutako diren ekimenean parte hartzea deitzea.

Mozioan oso garbi esaten denez, lau puntu horiek Aitzaga Elkartea bere izenean soilik aurkeztu zituen. Mozioari itxiera salatu duten elkarten zerrenda erantsi genuen. Guztira, 38 elkarten izenak. Hain zuzen, elkarte horiek espreski adierazi zuten euren atxikimendua Aitzaga Elkartea herriko elkarteetara itxiera salatze, auziperatuak izan direnekin elkartasuna adierazteko, ideien kriminalizazioa salatze eta mobilizazioetan parte hartze ihorritako atxikimendu orrian.

Luis Mari Ormaetxeak maltzurki eta apropos guztia manipulatu nahi izan du. Herriko taldeei eskutitz bat igorri die berriki, Aitzagak Udalari egiten dizkion eskaerkin bat egiten ote duten ziurtatu asmoz. Hona hemen eskuiztak dioena: "Idatzi bat jaso dut Aitzaga Elkartearen izenean, non hainbat eskaera egiten zazikion udalari. Idatzi horrekin batera bigarren orri bat gehitzen zaio. Bertan, herriko hainbat elkarten zerrenda agertzen da, adieraziz Aitzaga Elkartearen eskaerarekin bat egiten dutela. Segurtasun guztiarekin baieztatu dezaket guztiek ez dutela beren aldeko iritzia azaldu. (...). Zalantza horren aurrean eskutitz hau bidaltzea erabaki dut baieztatu dezazuen bat

egiten duzuela edo ez eskaera horiekin (...)"

Fitxa poliziala dirudi. Ustezko zerrenda dio, gainera. Guk ziurta dezakegu euren atxikimendua dugula. Elkarteren batekin zalantza badu, modu zuzenena gurekin harremanetan jartzea zela uste dugu (egin ez duena noski), herriko elkarten izen ona eta asmo ona zalantzan jarri beharrean. Agian zerbait gaizki egin dugu, eta hala izan bada, ez asmo txarrez.

Ormaetxea, garbi erakutsi duzu zure asmo bakarra giroa gaiztotu eta tenkatzea dela. Hori da zure lan egiteko modua. Garbi erakutsi duzu egoera politikoak eskatzen duen neurrian egoteko kargu publikoa ez zarela. Elkarlana erraztu dezaketenekin abiaturik ordez, zure asmoa, guztiz bestelakoa da. Eskerrak zure alderdiko (EA) buruzagi, alderdikide eta botoemaile gehienak ez duten zure jarrera! Gure ustez, bizi dugun momentu politiko garrantzitsu eta itxaropentsu honetan bazterketa politikan oinarritutako erabakiek, eskubideen urraketaz gain, oztopo eta traba handiak dira ireki nahi dugun konponbide demokratikoaren aldeko prozesuari begira.

Aitzaga Elkartea

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Beteka taldeak lehen emanaldia eskainiko du maiatzaren 27an

Bada Usurbilen batukada talde bat: BTK edo Beteka, duela hilabete batzuk bil-tzen hasi zena. Iker Muguruza talde-ko partaidearekin eta Odei Astibia irakasle oreretarrarekin hitz egin dugu Zumarten, Betekaren entsegu batean. Maiatzaren 27an lehen zuzeneko emanaldia eskainiko dute. Soinurbil Musika Asteko ekitaldi deigarrienetakoa izango da.

NOAUA! Noiz hasi zineten batukadarekin?

Iker Muguruza. Otsailaren lehenengo astean hasi ginen ikastaro bat egiten. Usurbilgo batzuk batukada ikasteko gogoia zutela eta Zumarte Musika Eskolak antolatu zuen ikastaroa. Odeiri deitu zitzaion irakasle lanetarako eta hamabost lagun juntatu ginen. Ikaragarritzko martxa egoten da entseguetan.

BATUKADA ESTILOA

“Batukada estiloa gogor ari da jotzen herri guztietan, gero eta talde gehiago dago”

N. Nolakoa izan zen sorrera?

I. M. Garikoitz Udabe eta Josu Aranberri horrelako zerbait egiteko gogoia zutela komentatzen hasi ziren. Gu ere gogo horrekin genbiltzan, baina ez genekien ondo nondik hasi. Baina ikusita jende asko zegoela gogo



ENTSEGU BATEAN ATERATAKO IRUDIA. TALDEKO KIDE BATZUK FALTA DIRA ARGAZKIAN.

berberarekin...

Odei Astibia. Gainera, orain gogor ari da jotzen batukada herri guztietan, eta geroz eta talde gehiago dago. Doritos Capoeira, Carlinhos Brown eta horrelako gauzek gogor jo dute.

I. M. Horrela sortu zen gurea ere. Nahi baino jende gutxiago gaude azkenean, askok nahi baitzuten parte hartu, baina momentu horretan ezin zen, hamabost baino gehiagoko taldea osatu...

Dena den, ondo ateratzen bada, eta badirudi ondo ateratzen ari dela, akaso datorren urtean zerbait gehiago egongo da.

N. Egin al duzue emanaldirik?

I. M. Ez, oraindik ez.

O. A. Lehenengoa hilaren 27koa

izango da.

I. M. Eta hurrengoa festetan, uztailaren 2an.

O. A. Egun horretan Zozongo eta Beteka taldeak joko dugu.

I. M. Zozongo Odeiren taldea da, eta Usurbilgoa, Beteka.

O. A. Hori ikaragarria izango da.

I. M. Bai, gu hamabost gara eta hauek beste hainbeste! Hauek gainera dantzariak eta abar dituzte, izugarria izango da.

N. Zeintzuk osatzen duzue Beteka?

I. M. Garikoitz, Ixak, Josu, Antton, Txafilis, Agurne, bi Iñaki ditugu, bi Gorka, Odei, Martin, Jokin, Nagore eta Ibai.

NEREA KORTA

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



Kale nagusia, 10.
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojundegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Zendoia



Kale Nagusia 35 · 943 37 40 71

Perkusio instrumentuekin osatutako taldea

Akaso ikusiko zenuten antzeko proposamenik beste nonbait. Horrelako taldeen doinuak, gehienak, instrumentalak dira. Kalejiran ibili ohi dira eta kantuak erritmo handikoak direnez, ikusgarriak izan ohi dira batukada saioak. Maiatzaren 27koa ere hala izango da.

N. Entsegu asko eskatzen al du honek?

O. A. Beno, egia esan segituan hartzen da martxa. Hauek, behintzat, segituan hartu dute. Nabaritzen da musika ikasten dutela. Lau klasetan jada oso aurreratura geunden. Moldeak egiten hasi ginen, pixkanaka dantzak sartzen. Detaileak, kantak...



DENBORA ASKO EGIN DUTE ENTSEATZEN. ORAIN, IKASITAKO GUZTIA PLAZARATZEKO GARAIA IRITSI ZAIE.

BATUKADAREN JATORRIA

“Batukada, berez, Brasiletik ekarritako musika da”

N. Instrumentuak nondik atera dituzue?

I. M. Zozongo taldekoenak dira, entseguetarako alokatuta dauzkagu. Hala ere, taldekide batzuk hasi dira beraien instrumentuak erosten.

N. Kontatuko al diguzue batukada zehazki zer den.

O. A. Perkusiozko instrumentuekin osatutako talde bat da, dena perkusioa da. Baina guk, adibidez, erritmo funky batzuk ere sartzen ditugu, doinu afrikar batzuk ere nahasten ditugu... Hau da, ez da batukada brasildar soila. Badaude beste eratako batukada brasildarrak,

samba-reggae modukoak... Denetik pixka bat da, nahasketa bat. Gero kapoeirako kanta bat ere badugu... Batukada, berez, Brasiletik ekarritako musika modalitatea da. Baina guk hemendik pixka bat eta handik beste pixka bat hartzen dugu, eta azkenean pilota bat egin eta... Beteka!

N. Entseguak hobeto Zumarte barruan ala kalean, kanpoan?

I. M. Kanpoan hobeto. Barruan itxiegia gelditzen da, eta ematen du ondo entzuten dela, baina kanpora irtean soinuak alde egiten du, asko nabarmentzen da. Eta zailagoa da aurrekoarekin kontaktatzea... Erosoagoa da barruan, baina gero beti kanpoan jo behar da, orduan...

O. A. Gozatu, agian, gehiago goza-

tzen da barruan. Bolumen handiagoa entzuten da... Kanpoan, soinuak alde egiten du eta kolpe bakoitza zehatz entzuten da dagoen tokian. Horregatik, kolpea ez badoa behar duen tokian, nabaritu egiten da.

N. Bukatzeko, zer ikusiko dugu maiatzaren 27ko saioan?

O. A. Showa!

I. M. Izugarria gainera! Eta Beteka taldearen hasiera izango da. Zumartek antolatzen duen Musika Astearren barruan joko dugu, Galizako dantza talde bat dator arratsaldean eta haien ondoren, festa bukatzeko, Beteka.

Beteka perkusio taldea

Noiz: maiatzaren 27an larunbata.

Non: Kalean, 20:00etan nahiz 23:30ean.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 • ASTEASU
© 943 69 68 52 • 620 800 186

LATXA
herriko denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktua

Edificios E. Urdal / Tel. 606 301 803

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Debako Musika Bandaren saioarekin amaituko da Soinurbil Musika Astea

Debako Musika Banda 1978. urtean sortu zen, Santi Gimenezek gidaritzapean. 1991. urtetik aurrera, Fernando Urainek hartu zituen zuzendari-lanak. Denbora honetan guztian, Debako Musika Bandak ekitaldi garrantzitsuetan hartu du parte: Donostiako Musika Hamabostaldian, Donostiako Aste Nagusian, Real Sociedad-eko hainbat ekitalditan... Zumarte Musika Eskolaren ekimenez, maiatzaren 28an Usurbilen izango ditugu.

Iaz Bergarako Musika Bandak alaitu zituen Usurbilgo kaleak. Aurtengo Musika Astean, Debakoa izan da aukeratu den taldea.

Ez da nolanahiko musika taldea. Debako Musika Bandak hiru CD argitaratu ditu, musika estilo ezberdinak jorratuz. Gaur egun, 39 kidek osatzen dute Debako Musika Banda. Aipagarriena, ordea, talde honen adinaren batz-bestekoa da: 24 urte. Etorkizun handia duen taldea, ezbaierik gabe.

Lehenik kalejira, ondoren kontzertua

Debako Musika Banda, lehenik eta behin, kalejiran ibiliko da. Kalez kaleko saioa 11:30ean hasiko da. Zumarte Musika Eskolatik abiatuko da kalejira. 12:30ean iritsiko dira frontoira eta bertan kontzertua eskainiko dute. Kontzertuan eskainiko dituzten obrak hauexek izango dira: "Miguel Angel" (pasodoblea), "La Boda de Luis Alonso" (Intermedio) "Capricho Italiano", "Music For A Solemnity (Tribute To John Williams)" eta "Sing, Sing".

Debako Musika Bandaren emanaldiarekin amaituko da Soinurbil Musika Astearen bigarren edizioa. Udalak eta Zumartek antolatu dute Musika Astea eta hauek izan dira laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa, Udarregi ikastola, Salvatore Eliza.



IAZ BERGARAKO UDAL MUSIKA BANDA ARITU ZEN USURBILEN.

Mungia eta Zumarte Musika Eskolak elkarrekin

Maiatzaren 12an Zumarte Musika Eskolako ikasleak Mungian izan ziren. Maiatzaren 26an, Mungiako Musika Eskolako ikasleak izango dira Usurbila hurbilduko direnak.

Orain dela 27 urte sortu zen Mungiako Musika Eskola. Gaur egun, musika hezkuntzarekin batera euskal dantzak ere eskaintzen dira Mungiako eskola honetan. Guztira, 18 musika irakasle eta euskal dantzako 8 begirale ari dira lanean.

635 ikasle ditu Musika Eskolak eta horietatik 345 musika tresnaren bat jotzen ari dira eta 190 euskal dantzak ikasten.

Mungiako talde instrumental txikia, trikitixa-pandero taldea eta abesbatza arituko dira Sutegin, Zumarteko kitarra taldea eta trikitixa-pandero taldearekin batera.

Maiatzaren 26an ostirala, 19:00etan, Sutegiko auditorioan.

Anduriña Dantza Taldearen emanaldia

Anduriña dantza taldearen Aibilbidea 1988an hasi zen. Hasiera-hasieratik helburu nagusia galizar kultura ezagutaraztea izan da. Talde honetako kideen ahalegiari esker, Porto do Soneko Anduriña udal eskolak musika-jaialdi askotan hartu du parte.

Galizan estimazio handiko taldea da. Dantza talde honek, urtero, Galizako musika jaialdi garrantzitsuenetan hartzen du parte.

Horrez gain, Galizako telebistako (TVG) "Luar" programan eta La2-eko "Desde Galicia para el mundo" programan hartu dute parte. Anduriña Udal Dantza Taldearen emanaldia larunbat honetan ikus ahal izango dugu Sutegiko auditorioan, arratsaldeko 19:00etan hasiko den emanaldian.

Maiatzaren 27an larunbata, 19:00etan, Sutegiko auditorioan.

Beka deialdi berria egin du NOAUA!k

Usurbilgo herriari buruzko edozein ikerlan-proiektu aurkez daiteke

Herriak badaki, Usurbilgo memoria errepresiboa laburbiltzen duen liburua gogoan duzu? Eta Usurbilgo baserrien liburua? Josu Tellabidek egin-dako liburu ederra? Bada bata zein bestea NOAUA!k sustaturiko beka deialdien bidez abiatu ziren. Egitasmo berriak entzuteko irrikitan da NOAUA!ko zuzendaritza batzordea. Hortik dator orri honetan jaso dugun deialdia. Irailaren 15ean amaituko da egitasmoak aurkezteko epea.

1.- NOAUA! Kultur Elkartek 2.000 euro bildu ditu 2006an Usurbilgo herriari buruzko ikerlan-proiektuak burutzen laguntzeko.

2.- Ikerketarako deialdi honetan edo-nork har dezake parte.

3.- Burutu nahi den ikerlana edozein alorretakoa izan daiteke: historia, soziologia, biologia, kultura, teknologia berriak... Baina, beti ere, Usurbilgo herriari buruzkoa.

4.- Ikerlan-proiektuak norbanakoez nahiz taldeek aurkez ditzakete.

5.- Euskaraz burutuko diren ikerlan-proiektuak bakarrik hartuko dira kontuan. Erdaraz burutu eta euskarara itzuliko liratekeen ikerlan-proiektuak ez dira aintzat hartuko.

6.- Deialdira aurkeztuko diren ikerlan-proiektuak originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

7.- Aurreko bi arauetakoren bat ez dela bete egiaztatuko balitz, elkarreztatzaileak dirulaguntza itzultzea eska lezake, emanda baldin balego.

8.- Ikerketarako dirulaguntzaren bat jaso ahal izateko eskaerak, NOAUA!

Kultur Elkartearen egoitzara (Bordaberri 3; Eguzkitzaldea; 20.170 Usurbil; Gipuzkoa) helarazi beharko dira ondoko dokumentazioarekin:

-Egilearen edo egileen nortasuna.

-Curriculum vitae.

-Burutu nahi den ikerlan-proiektua, honen nondik-norakoa eta garrantzia azalduz, eta zein euskarrietan egingo litzatekeen (liburua, DVD, Internet...).

-Ikerketaren aurrekontu zehatza.

-Harremanetarako helbidea, telefonoa.

9.- Eskaerak jasotzeko epea 2006ko irailaren 15ean, eguerdiko 12:00etan, itxiko da.

10.- Aurkeztutako ikerlan-proiektuak aztertzeko epaimahaiak NOAUA! Kultur Elkartek izendatuko du eta honen erabakiak aldaezinak izango dira.

11.- Epaimahaiak dirulaguntzarik ez banatzea erabaki lezake, baldin eta aurkeztutako ikerlan-proiektuek gutxieneko kalitaterik ez dutela uste badu.

12.- Epaimahaiak erabakiko du ze ikerlan-proiektuek jasoko duten dirulaguntza eta hau zenbatekoa izango den. Proiektu bat baino gehiago izan daitezke aukeratuak, beti ere 2.000 euro banatuz, gehienez ere.

13.- Epaimahaiaren erabakia parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie.

14.- Epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren, dirulaguntzaren bat jasotzeko aukera egokitu zaien eskatzaileek hamar eguneko epea izango dute beraien oniritzia emateko. Hala egingo ez balute dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko lukete.

15.- Eskainitako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira:



BEKA DEIALDI BATETIK
ABIATU ZEN BASERRIEN LIBURUA.

Lehen zatia: dirulaguntzaren % 25a, eskatzaileak oniritzia ematen duen unean.

Bigarren zatia: dirulaguntzaren gainontzeko % 75a, ikerlana bukatu, entregatu eta NOAUA! Kultur Elkartek izendatutako epaimahaiak ontzat ematen duenean.

16.- Aukeratutako ikerlanak, dirulaguntzaren lehen zatia jasotzen denetik sei hilabetera bukatu beharko dira.

17.- Dirulaguntzaren bat jaso duten ikerlanen jabetza egileena izango da.

18.- NOAUA! Kultur Elkartek bereztat gordetzen du, bi urterako, dirulaguntzaren bat jaso duten ikerlanen argitalpen-eskubidea. Argitalpen honek ez du egile-eskubiderik izango.

19.- Dirulaguntzaren bat jaso duten ikerlanak argitaratzean, nahitaez, NOAUA! Kultur Elkartek emandako dirulaguntzaren aipamena egin beharko da.

20.- Deialdi honetan parte hartzeak, oinarri hauek eta aipatu epaimahaikoen erabakia onartzea dakar, partehartzaile guztien aldetik.



Mundu bat Sagardo Egunean

Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kideak pozik egoteko moduan dira. Eguraldia espeziala izan zen. Atzerriko sagardoak jakinmin handia piztu zuen. Alkartasuna plaza era honetako ospakizunetarako toki aproposa dela ere frogatu zuten. Eta hori gutxi balitz, Artzabalen zabaldutako gunek haur eta gaztetxo ugari erakarri zituen.

XXV. Sagardo Eguna ez zen oharkabea pasa. Martxa honetan, beste 25 urte baietz! Eguraldia lagun, jende ugari bildu baitzen Dema plaza ingurura.

Aurten, kanpoko sagardo ugari dartzeko aukera izan da: Mexikokoa, Belgikakoa, Kanadakoa, Errusiakoa... Arrakasta handia izan zuten denek. Kanpotik ekarritako sagardo eta sagarkiak azkar asko agortu baitziren.

Estrainekoz, jaia Askatasuna plazara zabaldu da aurten. Honek Dema plaza



ESTRAINEKOZ, ATZERRIKO SAGARDOA NAGUSI IZAN ZEN DEMA PLAZAN.

arintzen lagundu zuen. Ez zen berritasun bakarra izan. Artzabalen haur zein gaztetxoentzat zabaldutako gunean ere primeran pasa zuten txikienei.

Kerman Errekondo garaile
Sagardo botatzaileen lehiaketan,

Urko Manterola izan zen hirugarren, Arantxa Unanue bigarren eta txapela, beste behin ere, Kerman Errekondorentzat izan zen.

Jaiak jarraipena izan zuen arratsaldean. Baita gau partean ere. Gaupasa egin zuenik ere izan zen.

Askatasuna plaza ere pil-pilean



FESTA ASKATASUNA PLAZARA ZABALDUZ, ANTOLATZAILEEK BETE-BETEAN ASMATU ZUTEN.



ASKATASUNA PLAZAKO BOTATZAILEEK EZ ZUTEN ATSEDENIK IZAN.



SUKALDEA ASKATASUNA PLAZAN; DATORREN URTERAKO KONTUAN HARTZEKOA.



SAGARDO BOTATZAILEAK, LANEAN HASI AURRETIK ATERATAKO ERRETRATUAN.



EGUNARI HASIERA EMATEKO OHOREA IZAN ZUTENAK SAGARDO BOTATZAILEAK IZAN ZIREN.



DEMA PLAZAN IRUDI EDERRAK IKUSI GENITUEN.



IAZ BAINO JENDE GEHIAGO IBILI ZENEZ, BOTATZAILEEK LAN GEHIAGO EGIN BEHAR IZAN ZUTEN.



KARPIN, REALEKO JOKALARI OIHA, USURBILEN IZAN ZEN. ZALETUEK EZ DUTE AHAZTU.



DEMA PLAZA, EGUERDITIK JENDEZ GAINEZKA.




BOTATZAILEEN LEHIAKETAKO IRABAZLEAK ETA EPAIMAHAIKO KIDEAK ELKARREKIN.



MUNDIALA IZANGO ZELA ETA HAUEK HALA AZALDU ZIREN, "CIDER DAY" KAMISETA SOINEAN.



AURTEN ERE, GURE ARTERA BILGUNEKOAK LAN ETA LAN ARITU ZIREN.



18/98+ LAN TALDEAK DIRU BILKETA IKUSGARRIA EGIN ZUEN FRONTOI ATZEAN.



BOTILAKOA NAHIZ LATAKOA, ATZERRIKO SAGARDOAK ARRAKASTA IZAN ZUEN.



Sagardo Egunak hedabide askoren arreta bereganatu zuen

Mundu bat ibili zen Sagardo Egunean. Era berean, jai hau mundu-ertzeko ahalegin berezia egin zuten hedabide askok. Telebista, prentsa eta irratiarekin batera, webgune askok XXV. Sagardo Egunaren berri eman zuten.

EITB entetik jarraipen zuzena egin zitzaion Sagardo Egunari. Telebista zein irratia bidezko konexio zuzenak egin ziren. Interneten ere, Sagardo Eguna albiste nagusia izan zen eitb24.com webgunean.

Zuzeneko konexioak egin zituen beste hedabide bat Herri Irratia izan zen.



PRENTSAN ETA INTERNETEN LUZE-ZABAL JASO ZEN SAGARDO EGUNA.

Biharamunean, prentsak luze-zabal jaso zuen Sagardo Eguna. Gara, Noticias de Gipuzkoa eta DV izan ziren tarte zabalea eskaini ziotenak. Azken biek, gainera, azalera eraman zuten Sagardo Egunaren albiste.

noaia.com webguneak lehen ordutik egin zuen jaiaren jarraipena

Gure webgunean jarraipen zehatza egin zitzaion Sagardo Egunari. Unean uneko ekitaldien berri eman genuen noaia.com webgunean. Sagardo Egunaren aitzakia-rekin gainera, "Argazkitegia" atala zabaldu genuen estrainekoz. Atari nagusian aurkituko duzu argazkitegiaren ikurra. Klik egin eta begibistan izango dituzu irudi ugari.



www.noaia.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tarteak

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Usurbildarrentzat eginiko webgunea


**Ikus itzazu
Sagardo Eguneako
irudiak
Argazkitegian**

Pello Añorga ipuin kontalaria Kalezarren izango da datorren astean

Ekainaren 3an larunbata, Kalezarren arituko da Pello Añorga ipuin kontalaria; arrats-ko 17:00etan Haur Eskolako jangelan.

Oiartzungo ikastolan hainbat urte egin ondoren, ipuinak kontatzeari ekin zion 1986an. Ipuinen maleta zahar bezain berria lagun, adin guztietako jendeari begira, batzuetan bakarrik eta besteetan marrazkilariek edota musikariek lagunduta aritu ohi da.

Gaur egun, Euskal Herriko ipuin kontalari ezagunetarikoa da. Ipuin tailerrak eta ipuinari buruzko ikastaro teoriko-praktikoak ere zuzendu ditu. Hainbat libururen egile ere bada Pello Añorga.



PLIS, PLAS, TXALO TA JOLASI ESKER
ARITUKO DA KALEZARREN.

Euskal karaokea Santuenean

Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa ekainaren 3an izango da. Hori baino lehen, maiatzaren 27an larunbata, gaur egungo eta betiko abestiak euskaraz abesteko aukera izango dugu. Haur zein gazteak animatzeko Txatxilipurdi Taldea aurkeztu eta guzti hurbilduko da Santuenera. Karaoke saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da.



NOAUA!ko bazkideak Sagardo Egunean

Sagardo Eguna hasi baino ordu Serdi lehenago bildu ohi gara NOAUA!ko bazkideak. Beti toki berdinean, gainera. Maiatzaren 21ean urteroko ohitura berri genuen. Bistan denez, asko dira argazkian falta diren bazkideak. Guztira 525 bazkide baikara. Tira, ea datorren urtean lagun gehiago biltzen garen...



txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400
pintxoak
ogitartekoak
plata konbinatuak
TABERNA

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3-943 361 106
Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Zuen publizitatea hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

LAUKOTE
ORINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal) 943 36 09 80


JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Joan den astean Arratzainen izan ginen

Joan den astean, Lehen Mailako ikasleok Arratzainen era joan ginen udaberriaz gozatzeko asmoz. Bidean zehar animalia asko ikusi genituen. Ea guzti horien artean, behean izendatzen direnak aurkitzen dituzuen hizki-salda honetan.

Ardia - arraina - astoa -
 behia - katua - oiloa -
 oreina - pauma - sugandila
 - txakurra - txerria -
 txekorra - zirauna - txoria -
 zaldia - zezena.

Udarregi ikastolako
 Lehen Mailako ikasleak



J.ORBEGOZO
 ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
 BIZKARRA 1, 1. EBK 943372937 • 659602789

MIKEL IZAGIRRE
 ELEKTRIZITATEA
 943 365 095
 609 068 111
 5012 ARGI ETXEA 137 • KALEZAR

ERRAZKIN
 IGELTSERITZA
 OROKORRA
 kale Nagusia, 1
 Tel./Faxo: 943 365 125
 Mòbilak: 629 420 565 - 649 435 470

Kima
 MASAJE LEKUA
 Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
 Kale nagusia, 44- behea
 LASARTE-ORIA TEL. 36 61 97

BITXI
 Tailerra
 urre eta zilar
 lanak
 943 422 349

milorri
 lantzerak eta ekologikoa
 mantentzen dituzte, diseinatu
 eta aholkularitza
 Borda berri, 10 - Usurbil
 943 640 154 / 943 699 152 282
 milorri@usurbil.com

Ostiralean hasiko da Usurbil Cup 2006

Ostiral honetan hasiko da Usurbil Futbol Taldeak antolatzen duen Usurbil Cup 2006 txapelketa. Azken bi urteetan bezala, maiatzaren amaieran ekingo zaio haur eta gaztetxoek areto futbol lehiaketa honi eta datozen asteetan futbol zelai txiki bat bihurtuko zaigu herriko pilotalekua. Neska-mutilak futboleak jokatzen, senitarteko eta lagunak partidei begira... Ziur aurrean ere paregabe giroa sortuko dela bertan.

Izen-emateko epea pasa den maiatzaren 7an amaitu bazen ere, asteburu honetan hasiko da Usurbil Cup 2006 haur eta gaztetxoentzako areto futbol txapelketa. Aurreko bi asteburuetan pilotaleku inguruan ekitaldi desberdinak zeudenez lehiaketa honen hasiera ia hiru astez atzeratu behar izan dute antolatzaileek, baina hemendik aurrera, eta ekainaren 25a bitartean, futbol giroa izango da nagusi frontoi inguruan.

Usurbil Cup txapelketaren 3. edizioa izango da aurtengoa, eta aurreko

bi urteetan bezala bikaina izan da haur eta gaztetxoek erantzuna. Guztira 21 talde izango dira aurrean lehiatzen eta lau maila desberdinetan banatuta ia 170 partehartzaile izango ditu txapelketa honek. Azpimarratzekoa da haur eta gaztetxoek Usurbil Cup-en jokatzeke izaten duten ilusioa. Lehen edizioan 20 taldek eman zuten izena, iaz 21 taldek eta aurrean ere mantendu egin da kopuru hori.

9 eta 10 urtekoek jokatuko duten benjamin mailan sei talde izango dira: Txirristra, Lasarte Auto Eskola A, Lasarte Auto Eskola B, Benta, Beti Gu eta Bordatxo.

11 eta 12 urtekoen alebin mailan izango da talde kopururik handiena, zazpi hain zuzen ere: Txiriboga, Nik Neuk-tarrak, Mahuka, Zendoia, Pakiton Txokolatero, Txirristra eta Suge Gorriak.

13 eta 14 urtekoen infantil mailan bost dira txapelketara aurkeztu diren taldeak: T.G., Bordatxo, Pakitox, Borrokillas eta Makarroiak.

Azkenik, 15 eta 16 urtekoen kadete mailan hiru talde izango dira: Bat Sen



AZKEN PARTIDAK EKAINAREN

25EAN JOKATUKO DIRA.

Piru Lau, Txipironak eta Parranderoak.

Aurreko bi edizioetan bezala, txapelketa honetako partidak ostiral arratsaldetan eta larunbatetan jokatuko dira. Asteburuan dauden pilota partiden arabera, larunbatean goizean edo arratsaldean izango dira neurketak. Hala ere, antolatzaileen esanetan astegun batzuetan jardunaldia izango da. Azken partidak ekainaren 25ean izango dira, eta ordurako txapelketa amaitu nahi badugu astean zehar ere jokatutako beharko dira partida batzuk.

JOSU ARANBERRI

Usurbilek Azkoitian jokatuko du ostiralean

Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketako azken laurdenak jokatzeke txartela eskuratu ondoren, datozen bi asteburuetan Azkoitiaren aurka jokatuko du Usurbilek. Maiatzaren 19an jokatu ziren Zegaman azken zortzirenetako itzulerako partidak, eta espero zen bezala herriko pilotariak txapelketan aurrera egitea lortu dute.

Zegamako pilotalekuan ere 2 eta 1 irabazi zuten usurbildarrek. Kadete mailan 22-0 nagusi izan ziren Imanol eta Eñaut Esnaola, jubenil mailan Borja Pulido eta Alain Arrillagak 22-0 galdu zuten eta nagusien mailan 22-8 irabazi zuten Jabi Santxok eta Jon

Olaizolak. Honela bada, 4-2 izan da kanporaketa honetako azken emaitza.

Honenbestez, Azkoitiaren aurka jokatuko dute azken laurdenetan. Maiatzaren 26an, ostiral honetan, Azkoitiko Gurea pilotalekuan jokatuko dituzte joaneko partidak gaueko 22:00etatik aurrera. Kadete mailan Imanol eta Eñaut Esnaolak jokatuko dute, jubenil mailan, ordea, ez dago argi nortzuk osatuko duten bikotea. Iñigo Irastorza eta Iker Zinkunegi eskuetako minez dabilta eta herriko pilota ordezkariak ez dakite ostiralera-ko prest egongo diren hala ez. Nagusien mailan, berriz, Enrike Huizi eta Asier Arrutik jokatuko dute.

Eskubaloian bikain Udarregiko infantilak

Udarregi ikastolako infantil mailako nesken eskubaloia taldea da Gipuzkoako eskolarteko txapeldun berria. Pasa den maiatzaren 20an jokatu zuten finala Beasainen LSB Andoaingo ikastolaren aurka eta 18-8 irabazi ondoren Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuten. Honela, maiatzaren 27an, larunbat honetan, Euskadiko txapelketako jokatuko dute Tolosan Bizkaia eta Arabako irabazleen aurka. Maila bereko mutilen taldeak, berriz, 28-20 galdu zuen Haztegi La Salleren aurka jokatutako finala.

Aholkua !!

Produktu mirarigileek miraririk ez

Irratia zein telebista bitartez hainbatetan entzungo zenuen zenbait gaixotasun sendatzeko produktu eta tratamendu bereziak badaudela merkatuan. Argi ibili: haste-ko, dirua gal dezakegu, eta okerre-rena dena, osasuna ere bai.

Produktu mirarigileak ez dira medika-mentuak. Produktu kontrolatuek sei zifrako zenbakia eduki behar dute ontziaren goialdean "Codigo Nacional de Medicamentos"i dagokiona; halaber, CPS (Control Previo Sanitario) delako sigla erakutsi behar dute. Medikamen-tuaren publizitatearen gainean aurretiaz-ko osasun kontrola egin dela adierazten

du CPS ikurrak eta iragarki guztietan agertu behar dute.

Tratamendu terapeutikoa behar duen benetako gaixotasun edo lesioren bat iza-nez gero, horrelakoak erabiltzeak trata-mendu egokia geroko uztea ekarriko dizu, eta baliteke horrek oso denbora baliotsua galaraztea.

Ez fido dena sendatzeko gai direla dio-ten tratamenduekin; bestelako eraginik ez dutela edo medikuarengana joan beharrik ez dagoela esaten duten pro-dukturekin. "Produktu mirarigileak" kal-tegabeak izan ohi dira, baina ez erabili osasunarentzat ustez onuragarria den produkturik aurretiaz medikuarekin hitz egin gabe.



Horrelako produkturen bat kontsumi-tu baduzu eta ez badu agindutako eragi-na izan, ordaindutako dirua itzultzeko eta eragindako kaltea konpontzeko eska-tzeko eskubidea duzu; fabrikatzaile zein banatzaileen aurrean.

Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 25, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 26, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 27, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 28, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 29, astelehena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 30, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 31, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 1, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 2, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 3, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 4, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

GORRITI
edaritegia

kafe berezia!

SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770

ITURGINTZA

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

OSU

943 371 954
UGALDEA POL. 36-2 USURBIL

I n t e r n e t - z r m u n l k

BEMARAKO
BEMINIK MAIOR...

Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

K n k l

- L n t z r
- G z n z k n r r p
- l l u r n t z k
- F i x r k h r
l u z u n k

Zubiaurrenea, 3 3 3 17 7

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

Agenda !!

Maiatzak 25, osteguna

Joan Luis Atxegaren organo kontzertua Salbatore elizan, 20:00etan. Sarrera doan.

Maiatzak 26, ostirala

- Mungiako Musika Eskolako eta Zumarteko ikasleen kontzertua 19:00etan Sutegin. Sarrera doan.
- Etxeratlek hileko azken ostiralean antolatu ohi duen elkarretaratzea. 20:00etan, pilotaleku atzean.

Maiatzak 27, larunbata

- Euskal karaokea. Plis, Plas, Txalo ta Jolas. 17:00etan Santuenean.
- Anduriña Dantza Taldea eta Zumarteko ikasleak Sutegin. 19:00.
- Batukada emanaldia 20:00etan eta 23:30ean. Klean.

Maiatzak 28, igandea

Debako Musika Bandaren kalejira 11:30ean klean zehar eta kontzertua 12:30ean frontoian.

Igande honetan Elorrión, Ibilaldia 2006

Urteak joan urteak etorri, Ibilaldiak bere sortzeko arrazoi eusten die: ikastolen hezkuntza proiektua ezagutzera ematea eta erronka berriei aurre egiteko baliabideak eskuratzea.

Elorrión maiatzaren 28an ospatuko dena 28. edizioa izango da. 2006ko Ibilaldia Elorrioko Txintxirri ikastolak antolatuko du (Udarregi ikastolak ez du Ibilaldia joateko autobusik antolatu).

Literaturaren txokoa !!



Gontzal Mendibil, orain idazle

Eleberri hone-
tan Gontzal Mendibilek, Gorbeiapeko bere herriari lotutako istorio hauek modu soltean eta aurreiritzirik gabe kontatzen dizkigu. Bizitza eta heriotza, denbora eta memoria, adiskidetasuna eta maitasuna, kultura eta politika, euskaldunon komunikazio-in komunikazioa. Gerrako mina, aiti- te Adolfoaren asmamenak eta geroa-



goko xelebrekeriak eta xelebreak, besteak beste. Barruko sentimenduak agerraraziz eta inoiz ahaztu nahiko ez lituzkeen istorioak berreskuratuz. Amets imaginario batean sartu gaitezen proposatzen digu zeaturitarrak. Prosa musikala dirudi Gontzalenak. Estilo bizi-bizia darabil, bihotzetik harako sentimenduz betea, musikaz josia eta herrikoitasunean oinarritua, gozoa, samurra, herrikoia, aberatsa eta iruditsua. Irakurri eta gozatu beharreko liburu interesgarria, benetan.

Egin kontu !!

Gomazko Paleta Txapelketa Aginagan

Aginaga KKE elkarteak eta Gipuzkoako Euskal Pilota Elkarateak antolatuta, federatu gabekoentzako III. Gomazko Paleta Txapelketako finalerdiak jokatu dira maiatzaren 26an arratsaldeko 20.00etan Aginagan.

Agiña, Asteasu, Ataun, Lasarte-Oria, Loiola, Oiartzun, Segura, Tolosa eta Zarautz izan dira txapelketa honetan parte hartu dutenak. Ligaxka jokatu ondoren, Agiña-Segura eta Lasarte-Oria-Tolosa izango dira finalerdietako partidak. Aitor Landa eta Manuel Galarraga izango dira Agiñako ordezkariak finalerdi hauetan.

Bazterketa salatze- ko deialdia egin du UHLk

UHLk elkarretaratzea antolatu du maiatzaren 25erako. Igorri diguten prentsa-oharrak dioenez, "hiru urte bete-ko dira udaletik kanpo utzi gintuztenetik. Bazterketa hori gogoratu eta salatze-ko kontzentrazioa deitu dugu, maiatzaren 25ean osteguna frontoi atzean arratsaldeko 20:00etan".

Mozio bat ere aurkeztuko du UHLk maiatzaren 30ean egingo den ohiko udalbatza plenoan. Herritarrei plenora bertaratze-ko deialdia egin zaie. Eguerdiko 13.00ean udaletxe-ko pleno aretora hurbiltze-ko deia zabaldu dute.

EUSKAL OKELA

h k k l , 4
T H 433 5742

UT ZE

ETXK

ITZU

F IT K
ZKI K
IKTU K
K NAEL TU K

Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa berrmatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile (bungalow) alokatzen da. Hondartza gertu. Guztiz jantzita, bi logela dauzka, terraza eta jardina. Aste buruak eta uda. Ekonomikoa. 685 721 652 edo 665 734 009.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde: 943373185.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat

eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

Aginagako Manterola gasolindegian oporretako ordezkapenerako pertsona bat behar da, ekainetik urrira lan egiteko. Interesatuak curriculum argazki batekin utzi gasolindegian, edota deitu 943 36 13 95 zenbakira (Garbiñe).

- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza. 645403905.
- Emakume bat behar da etxeko lanetarako. 650947142
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. Interesatuak deitu 661972670 telefonora.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 6 urteko neska baten txandak txaketa berde bat galdu dugu Txirrista inguruan. Aurkitu duenak deitu dezala: 658723426.
- Kotxe bat salgai, Opel Frontera. SS-AP, 3.000 euro. ITV eta bineta ordainduta. Telefonoa: 656 712 340 (Luis).
- Euskadiko selekzio txandaren jertsea galdu zait, frontoi inguruan. Aurkitu duenak deitu 943 366 845.
- Urrezko pultsera bat galdu zait Artzabalgo frontoi inguruan. Aurkitzen duenak NOAUA!ra eraman dezala. Eskupekoa emango da.
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroi pasako ginatke jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldia. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tfnoa: 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !!



Zorionak bioi!

Julenek 5 urte egingo ditu ostiralean eta Mikelek lehenengo jaunartzea igandean. Zorionak eta muxu haundi bana etxekoentzatez!



Ze uste huan aingeru aurpegi horrekin ez gintuala hitaz goatuko? Maiatzaren 26an zerbait hartzera gonbidatuko gaituk ezta? **Zorionak Gari!**

JAIOTAKOAK

- Enaitz Garcia Sanchez
2006ko maiatzaren 1ean.

HILDAKOAK

Pako Olasagasti Etxaniz
Maiatzaren 17an hil zen
68 urte zituela.



DJ LARRA
-ezkontzak
-festak...
Tel. 615 713 204

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA SALMENTA
PINTORE KALEA 7 · LABARTE-DRIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

PLIS PLAS TXALO TA JOLAS

SANTUENEAN
balomanoko gunean
TXATXILIPURDI
"Euskal Karaokea"
maiatzak 27 • 17:00

Noaua!

KALEXARREN haur eskolako jantzeria
PELLO ANORCA ipuin kontalaria
ekainak 3 • 17:00
4 urteko gorako haurren artean

AGINAGAKO frontoian
KILIMISKA ANIMAZIO taldea, "Jolas txuknak"
ekainak 10 • 17:00

HERRIKO frontoian
PIRRITX ETA PORROT
ekainak 15 • 17:00

ALDATZ KIROL MODA

Dagoeneko prest daukagu **UDARAKO ARROPA**

%30

Jaketilak, kamisetak, gaitza motak
sufanderak, gaitza, leinu-jantziak,
txandak, eta...

%50

bertuek eta txanarrak

Alperro Buru 2 - Usurbil - 943 366 542



berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa **DOAN** goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskotan...
3. Harpidedunentzat zozketak, opariak eta deskontuak.
4. Promozioetan abantailak



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz gero, **2 opari aukeran**

Deitu **ORAIN!!**

943 30 43 45

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



*Gutxienez harpidetza behar duzu berria berria.

Aukera ezazu. **BIZI euskaraz berria**

Edertu zaitez!



- ✓ Depilazioa ✓ Manikura
- ✓ Aurpegiko tratamendua
- ✓ Pedikura ✓ Solariuma ✓ Makilatu

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



Depilazioa
Makilajea
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951

Elexpe
ileapaindegia



Betileen tintaketa
eta permanentea
Estetika • Tatuariak
Zutikako eta Elzandako
Solariuma

Muna-Lurra 2. ☎ 943 370 462

INTZA
ileapaindegia



ILE TRATAMENDUAK

- ✓ Betileen tintaketa
- betileko tratamendua
- ✓ Zorriak
- zorriko tratamendua

Eskaintza bereziak!
Solarium-eko bonuetan

K7 Nagusia 8 ☎ 943 363 641

Eskaintza
Solariuma
35€

Loli
Lizarralde
ileapaindegia

Estetika Zentroa
Merche Gurea eta ezkerik.

Zubiaurrenea 58 ☎ 943 371 371

TXARO

- × Ile zoriketa
- × Ilde apurketa
- × Zutikako
solariuma



Ezabastera 8 - 943 371 886